

PROIEKTUAK EHKO IKASTETXEAK LAN ESKAINTZAK LEGEDIA PRESTAKUNTZA DOKUMENTUAK LOTURAK AGENDA TXOKOA

ZER DA HIK HASI?

ALDIZKARIAK

MATERIALA

TOPAKETAK

HARPIDETZA

BALIA BIDEEN GIDA

KONTAKTUA

BILATZAILEA

bilaketa bilatu

EREMU BIDEZKOA

EZTABA IDA GUNEA

▷ HAZI HEZI etxean

hezten laguntzeko

aldizkaria

▷


▷ KEZKEN TXOKOA

BULETINA JASOTZEKO

Ekarpena

SUKARRIETA Taldea: Ingurumen hezkuntza. XXI. mendeko moda ala erronka?

Zenbakia	88. alea
Data	2004(e)ko maiatza
Idazlea	
Saila	Ekarpena



Aspalditxo honetan, Ingurumen Hezkuntzarekin lotutako hainbat eta hainbat ekimenez "inguratuta gaude". Zenbait eskola, enpresa, udal eta bestelako erakunde ingurumenaren zainketaren aldeko egunak, irteerak, jardunaldiak, ekipamenduak eta abar antolatzen ari dira, eta gizartearen aldetik harrera ona ziurtatuta izaten dute. Batzuetan, propaganda kutsua ere izaten dute eta antolatzaileei prestigioa emateko ekitaldi itxura hartzen dute. "Zer ote da bada, beste moda bat?", entzuten da horrelakoetan kalean.

Ikusi erlazioanaturiko artikulua

Ikusi erlazioanaturiko materiala

Gizartearen aldetik ere gero eta hedatuago dago, itxuraz behintzat, ingurumenaren bilakaera azken mendeotan ez dela bide onenetik joan, mendebaldeko garapen ereduak eragin zuzena daukela bilakaera horretan eta gure eguneroko bizimoduan ohikoak ditugun jarduera batzuk behintzat, neurriren batean, aldatu beharko ditugula, ingurumenaren alde egin nahi baldin badugu.

Nazioartean ere onarpen zabala dauka jadanik **Garapen iraunkorraren** beharrak. Kontzeptu hori aurreko mendeko 60ko hamarkadan sortu bazen ere, 1987an hedatu zen, Brundtland txostenak bere interpretazioa ezagutzera eman zuenean: "Garapen iraunkorra garaiko belaunaldiaren beharrak asetzen dituen garapena da, hurrengo belaunaldien beharrak asetzeko ahalmena murriztu gabe". Kontzeptu horrek zehaztasun eza handia badu ere, ezaugarri hauetan oinarritzen den filosofia bat bultzatzen du:

- Natur baliabideak kontserbatu beharra dago.
- Mugagabeko hazkunde ezinezko bihurtzen duten muga fisikoak daude.
- Beharrezkoa dena helburu sozialen lorpena da eta ez helburu individualena.
- Belaunaldi barruko eta belaunaldien arteko elkartasuna ezinbestekoa da.

Eta horren alde egiteko, beste hainbat eragileren artean, Ingurumen Hezkuntza agertzen zaigu protagonismo nagusiarekin. Bere azken xedea inguruan sortutako ingurumen arazoei aurre egiteko estrategia bat garatzea da. Izan ere, 1972an Stockhol-meko NB Eren Konferentzian Giza Ingurumenaz esandakoari jarraituz, "ezinbestekoa da gazteei zein nagusiei zuzendutako hezkuntza lana egitea ingurumen arloan, pribilegio gutxien dituen biztanleen sektoreari behar besteko arreta emateko, ondo informaturiko iritzi

publikoaren oinarriak zabaltzeko eta norbanako, enpresa zein kolektibitateen jokabide arduratsua bultzatzeko ingurua babesteko eta hobetzeko, haren gizatasun neurri osoan".

Bide beretik doaz, besteak beste, Belgradeko Nazioarteko Mintegian (1975), Tblisiko Gobernuen arteko Konferentzian (1977) eta Rio de Janeiroko Lurraren Goi Bileran nahiz Foro Globalean (1992) egindako adierazpenak, baita geroago sortutakoak ere, hala nola Salonikako Ingurumen eta Gizarteari buruzko Nazioarteko Konferentziakoak (1997) eta Johanesburgen izan zen Garapen Iraunkorrerako Munduko Goi Bilerakoak (2002)

Esandakoaren ildotik, Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza etorkizunerako hezkuntza da, aldaketa sozialak ulertzeko eta haien aurrean erantzuteko ahalmenak garatzen dituen, eta etorkizunari buruz era sormentsuan eta kritikoa pentsatzen irakasten duena. Kontzeptu dinamikoa da, hezkuntzari buruzko ikuspegi berria bultzatzen du eta adin guztietako pertsonak hezten ditu etorkizun jasangarria sortzeko.

Ikusten dugunez, azken urteotan Ingurumen Hezkuntzari buruzko oinarri teorikoa garatu eta sendotu da. Adostasun batzuk daude bere zergatien eta zertarakoen gainean, baina ez zaio pareko arretarik eskaini egiteko erari. Nola egin Ingurumen Hezkuntza? Ekimen bat abian jartzerakoan edo programa bat diseinatzerakoan, zeren arabera jakin hezitzailea eta benetan ingurumenaren aldekoa ote den? Zein irizpiderekin neurtu eman daitezkeen aurrerapenak? Ez al da egia "hezkuntzak" "ingurumenak" baino pisu txikiagoa izaten duela Ingurumen Hezkuntzako programetan?... Eskola, kultur etxe, nekazaritza eskola eta abarretan martxan jartzen diren programak beti al dira hezitzaileak? Globalizazioa, Garapen Iraunkorra edo birziklapena gai izanik antolatzen diren ekimenak, sentsibilizazio kanpainak edo egun bereziak beti al dira ingurumenaren aldekoak? Zein eratarara zuzendu daiteke jendearengana Ingurumen Hezkuntza programa bat, hezitzaile izan nahi baldin badu?...

Zeri buruz hezi?

Ingurumen Hezkuntza hiru jarduera maila hauetan jorratzen da: "Ingurunean bertan", "Inguruneari buruz" eta "Ingurunearen alde". Horrez gain, bere lan eremua ezin da mugatu naturaren alderdi fisiko/naturalak soilik aztertzea. Ingurunea konplexua den neurrian, kontuan izan behar da faktore ugariaren eragina (ekonomikoak, kulturalak, soziopolitikoak...) eta horien arteko harremanak.

Klima aldaketa, ozono geruzaren suntsipena, nekazaritzako lurren galera, basamortuen hedapena, basoen hondamendia, bioaniztasun galera, ozeanoen kutsadura, hondakin kantitate handien pilaketa eta -arazo haiekin lotuta- baliabideen agorpena dira, besteak beste, gaur egun munduak dituen ingurumen arazo larrienak. Haiekin batera, gizarte arazoak ere agertzen dira: aberats eta txiroen arteko polarizazio gero eta handiagoa, gudak eta beraien ondorioak, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko erlazio desorekatua... Horrek guztiak berez erantzuten dio "zergatik egin Ingurumen Hezkuntza?" galderari.

Arazoen zerrenda ikusita, argi dago badagoela nondik heldu Ingurumen Hezkuntzari. Izan ere, ia-ia edozein gai har dezakegu aitzakiatzat programa baten diseinuan. Mementoak, kokapenak, interesak, parte-hartzaileen adina, prestakuntza, baliabideak, gertaera hurbilak eta abarrekoak izango dira, beraz, gaiaren egokitasuna markatuko dutenak, baina betiere kontuan izanik ez gaudela elkarrekin lotu gabeko arazo multzo baten aurrean, arazo sistemiko handi baten aurrean baizik. Beraz, egiten diren planteamenduetan, arazo onorio negatiboetara mugatu beharrean, arazo jatorrian jarri beharko da arreta berezia, hau da, onura eta zerbitzuen produkzio, erabilpen eta kontsumo sisteman, iraultza industrialarekin jaiotzen zenean eta gaur egun nagusitzen denean, Lurraren Goi Bileraren inguruan sortutako Brundtland txostenak eta Agenda 21 delakoak aldarrikatzen duten bezala. Bestetik, Ingurumen Hezkuntzaren azken helburua arazoak konpontzeko erabakiak hartzea eta ekimena bultzatzea bada ere, ezin da lortu, aurretik betetzen ez badira problematikarekiko sentsibilizazio, ezaguera eta kontzientzia hartzearekin lotutako helburuak. Beraz, lau fase hauek izan behar dira kontuan:

- Sentsibilizazioa: arazo batera hurbildu eta jakin-mina sortzea haren inguruan.
- Ezaguera: arazo hori ulertzeko behar diren ezaguerak eskuratzea.
- Kontzientzia hartzea: hezten ari dena arazoaren barruan dagoela konturatzea.
- Ekimena: hezten ari denari aukerak eskaintzea, ekimenen bidez arazo konponketan parte har dezan.

Nola hezi?

Gure ustez, galdera honen erantzuna aurrekoarekin koherentzia bilatzean aurkitu ahal da. Ingurumen Hezkuntzako Euskadiko III. Jardunaldietan (Donostia, 2002) Daniella Tilbury-k zioenari jarraituz, garapen iraunkorra soilik lortuko da ikaste prozesu bezala ulertzen baldin bada eta, horrela, berebiziko garrantzia du nola eta zer ikasi kontzeptuak bat etortzeak.

Ingurumen Hezkuntzak aspaldi egin zuen ihes transmisio ereduetatik eta ezaguera konplexuaren eraikuntzaren parte-hartzean konprometituta dago. Konstruktibismoak dioenez, ikastea pentsamendua eraikitzea da. Horretarako, ikasitakoak esanguratsua, hau da, zentzuzkoa izan behar du. Lehendik ikasitakoarekin lotu eta beste esparru batzuetara aplikagarria izan behar du. Hori lortzeko ezinbestekoa da ikaslearen aurretiazko ideietatik abiatzea, ezaguera berriak eraiki eta gaitasunak garatzeko, betiere haren garapen-zona hurbilaren barruan. Ikaskuntzak ikaslearen autonomia bultzatu - ikasten ikastea, alegia- eta ikaslea bere ikaste prozesuez jabetzea lortu behar du. Barne prozesu sendo baten bidetik, ikaslea bera izango da bere garapenaren

autoerregulatzailerak -jarrerak barne-, prozesuko une guztietan jakingo du non dagoen eta nora doan erabakitzeke ahalmena izango du.

Egungo zenbait kanpaina, iragarki edo ekimenetan planteamendu konduktista hutsak antzematen dira. Gehienek azturak aldatzea dute helburu eta batzuk, gainera, pertsonengan sortzen duten beldurrean daude oinarrituta. Horrelako ekimenek, nahiz eta egoera konkretu batzuetan eraginkorrak izan daitezkeen, indar hezitzaile pobrea dute eta, ingurumenaren alde egitearen aldetik ere, zalantzarazkoak dira. Izan ere, ingurumena aldatzeko, etorkizuna erabaki nahi dutenengandik beren borondatean gerta daitezkeen aldaketan gaineko iritzia kritikoa izatea espero dezakegu eta ez mezu-hartzaile hutsak izatera mugatzea, nahiz eta mezuak ingurumenaren aldekoak izan.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar azturak behin eta berriro errepikatzen ditugun ohiturez osatuta daudela, baina horien aldaketa norberaren borondateatik datorrela hein batean, eta hor arrazoiak garrantzi handia duela. Konstruktibismoak arlo horretan jartzen du arreta berezia. Hain zuzen ere, ikaspen berriak aurretiazko ideien eta ideia berrien artean sortzen den gatazka kognitiboaren emaitza direla dio, eta aurrerapausoak aldaketan aurrerapen edo abantailaren bat ikusten baldin bada soilik gertatzen dira.

Aipatutako ideia pedagogikoen lurrartzea proposamen metodologiko hauetan gauzatzen da, besteak beste: aurretiazko ideiak ikertzeko probak, ikasitakoa adierazteko eduki sareak, berdinen arteko ikasketa, talde lana, elkarkidetzak, aniztasuna, hezkidetzak eta ludikotasuna kontuan hartzen dituzten estrategiak, errealitate hurbilarekin elkarrekintzarako irteerak, parte-hartzea garatzeko jarduerak...

Nola ebaluatu?

Edozein Ingurumen Hezkuntza programak ebaluazioa beharko du bere eraginkortasuna ezagutzeko, betiere ebaluazio prozesuaren hobekuntzarako tresna bezala ulertuta. Baina ebaluazioak zentzua izango du programa diseinatzen den momentotik bertatik kontuan izan eta jaso baldin bada. Ikuspegi jakin batetik pentsatutako programak beren jatorriarekin eta prozesuarekin zerikusia ez duten beste batzuetatik ebaluatzeak ezer gutxi eranstean dio programari berari.

Bestetik, ebaluazio sistemaren emankortasuna ebaluazioak berak heziketa prozesuari ematen dion bultzadaren indarrean neurtuko da. Ildo horretatik, ebaluazioa aberasgarria izango da bi helburu hauek betetzen dituen heinean:

- Heziketa prozesua piztu, suspertu eta -beharrezkoa denean- zuzendu.
- Heziketa prozesuaz jabetuz hezten ari denaren ikaspen metakognitiboa erdietsi.

Era horretan ulertutako ebaluazioak, etengabeko feedbackaren eraginez, hezten ari denaren barne prozesuarekiko inplikazioa eta ardura izatea erraztuko ditu eta, bestetik, heziketa prozesuan emango diren aldaketan "autoerregulazioa" ekarriko du.

Ebaluazio eredu honek Ingurumen Hezkuntza programa osoa blaituko du. Beraz, ebaluazio sistema diseinatzerakoan edozein irakaste-ikaste prozesutan ematen diren hiru fase nagusiak izango ditu kontuan: hasierako diagnostikoa, prozesu fasea eta fase batukorra.

- Hasierako diagnostikoaren helburuak motibazioa, sentsibilizazioa eta landuko den problematikaren aurkezpena dira. Ebaluazioari dagokionez, heziko direnek landuko den gaiari buruz dituzten usteak eta aurretiazko ideiak ikertu beharko dira. Horrela soilik jakin daiteke zein diren heziketarako abiapuntua eta ikaste prozesuan daudenen "garapen hurbileko zona".

- Prozesu fasean helburu nagusiak ezaguera, kontzientzia hartzea eta planifikatutako jardueren garapena izaten dira. Ebaluazioari dagokionez, oso garrantzitsua izango da hezkuntza programan parte hartuko duten guztien arteko helburuen adostasuna eta irudikapena, ekimenaren aitzinapena eta planifikazioa eta prozesuan egingo den ebaluazio irizpideak ere adostea (Zer egingo dugu? Nola egingo dugu? Zertarako?). Esandako guztia hasieran egitea komeni bada ere, prozesu osoan zehar txertatu beharko dira hausnarketa uneak, behar izanez gero prozesuak eskatuko lituzkeen norabide aldaketak burutu ahal izateko.

- Fase batukorraren helburu nagusia programatutako heziketa prozesuan izandako aurrerapenak baieztatzea da. Fase honetan berebiziko garrantzia dute konpromisoak, jarrera hartzeak eta ikasitakoaren komunikazioak. Ebaluazioaren aldetik, haien azterketak emango dizkigu argibide esanguratsuenak.

Ingurumen Hezkuntza programaren jarduera multzoa gorpil baten moduan ikusiko bagenu, esandako mekanismoak gorpilaren erradioak izango liriteke, gorpila bera helburuen ardatzarekin lotuko luketenak. Gorpila eta ardatzaren arteko lotura sendoa izanez gero, ez da orekarik galduko eta heziketa prozesuak hobeto egingo du aurrera.

Bestalde, zer esanik ez ebaluazio sistema honek bere baitan izan behar dituela programan parte hartzen duten eragile guztiak: hezitzaileak, hezten direnak, planifikatutako programa bera, baliabideak...

Zertarako?

Artikuluaren hasieran egungo ingurumen problematika zehaztu dugunean, geure burua lehenaren eta orainaren ondorioetan kokatu dugun moduan, orain geroan kokatu behar dugu. Etorkizunaren balizko eszenatokitian pentsatuz, jar ditzagun aurrez aurre egungo gizartearen bilakaerarekin itxaron dezakeguna eta guk nahiko genukeena. Ingurumen Hezkuntzaren azken xedea eta XXI. mendeko erronka espero dezakegun eszenatokia nahi dugunera hurbiltzea izango da.

Adierazi dugunak lotura handiagoa dauka Garapen Iraunkorra ulertzeko era berriekin, ekologia edo zientziarekin baino. Garapen Iraunkorrak zientziak, politika eta ekonomia biltzen ditu, kultura berri bat osatuz. Gizakiak munduarekin dituen harremanak sumatzeko eta balioesteko modua dira bere arreta gune nagusiak, eta horregatik eskatzen du orain arte gure pentsaera eta ekimena bultzatu dituen eredu mentalari buruzko hausnarketa kritikoa, bere osotasunean. Hori guztia da UNESCOk izendatu duen Ingurumen Hezkuntzarako Hamarkadan (2005-2015) sendotu nahi dena.

Une honetan, Ingurumen Hezkuntzak Garapen Iraunkorrarekin estutu behar ditu harremanak. Hezkuntza honek gure ulertzeko eta pentsatzeko erari buruzko hausnarketa bultzatu behar du, eta neurri berean gure jokatzeko era. Hots, hezitzailea den praktika bultzatu behar du eta ez irakatsi soilik egiten duena. Horrela lortuko da Ingurumen Hezkuntzaren funtsezko betebeharrak: gaur egun nahiz etorkizunean suerta daitezkeen ingurumen arazoei aurre egiteko irtenbideak asmatzeko ahalmena duten pertsonak heztea, eta ez errezetak aplikatu besterik egingo ez dutenak.

BIBLIOGRAFIA

- MAYER, M.: "Ingurumen Hezkuntzarako erronka berriak", in CENEAM karpeta, 2003ko otsaila (2001), Madril.
- NOVO, M.: Educaci3n ambiental. Bases 3ticas, conceptuales y metodol3gicas, Universitas, Madril, 1998.
- SUKARRIETA TALDEA: Aurretiazko Ideiak eta Ingurugiro-Hezkuntza, BBK Fundazioa/Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila, Bilbo, 1998.
- SUKARRIETA TALDEA. "Ebaluazio eredu bat aniztasunari ekiteko" in Hik Hasi, 78 (2003).
- TILBURY, D.: "Ingurumen Hezkuntza Johannesburgo-2002 ostean". Ingurumen Hezkuntzako Euskadiko III. Jardunaldiak (2002). Hitzaldia. Donostia.

IGO

31: Eskola berriaren gorpuzketan ezinbestekoa den herritartasunari ekin zaio

Lanbide Heziketa berria martxan da

Ikasturte berriko datuen artean dantzan

ARAMENDI JAUREGI, Pello:

Brasil: Brasilen ere pobrezia kolore beltza du

32: Egonezina areagotzen ari da EAeko Haur Eskoletan

Ikasle Mugimenduak

ETXEBESTE, Amaia; LOPEZ DE LUZURIA GA, Jose Inazio; RAZKIN, Josean:

Hezkuntza alderdi politikoen ahotan

LIZARRAKO KANPINA: Mahats bilketa

Haur-jolasen abestiak II

Euskaraz jolasten jarrai dezagun

SALBATORE MITXELENA ikastola, Zarautz: Picassoren

Uruguay: Montevideoko 'Gure haurrak' programa

33: Ekarpene interesgarriak plazaratzen ari da zenbait ikasle talde

Haur Eskolak: lehena, oraina eta geroa

IKASBATUAZ: Bide berriak urratuz

XIRULA MIRULA: Badok hamalau

Xirula Mirulak DBHrako bideo-zintak kaleratu ditu

BAI EUSKARRI: Goazen denok abestera!

haur-

jolasen abestiak

II

34: Hezkuntza ere Euskal Herrian dabilen aire berriekin doa.

HEKO Kolektiboa

SANTOS, Miguel Angel:

EIEF-FERE: Euskal Eskola

Akordio berri bat hirugarren milurtekoaren atarian

SARTAGUDA eta **LODOSAKO** ikastolak: Errioxako mugaraino

SEASKA Haur Eskola, Beasain: nola bizi duten plastika

SAREAN: Ikastetxe publikoetako zuzendariak bildurik

Praktikatzen: Diaporama, musika lantzeko beste modu bat

35: Hauteskunde sindikalak hausnarke-tarako arrazoi dira.

OCHOA DE ERIBE ROYO, Maria Pilar:

UMEZAINITZA Haur Eskola. Arrasate: Urarekin jolasten

HEZIBIDE: Matrikulazio garaian ere, elkarlanari lehentasuna emanez

Hauteskunde sindikalak

IBARRA, Irune: Idazkera ona, txarra, ulergarria...

Hezkuntzaren normalkuntza

Joana Albret bibliotekonomia mintegia: Ikastegietan zer-nolako liburutegiak?

PIARRRES LARZABAL kolegioa, Ziburu: antxetaren hegalkadak zabalduz

IBARRA, Irune: Idazkera harmonikoak ahalbidetzen

Praktikatzen: Gorputza eta bitartekariak musikan

Egoera berria sortzeko nahia baino zerbait gehiago somatzen da

Udal Ikastolak

DARUNBE, Jone; **OLIVERO**, Teresa:

LANBIDE HEZIKETA: Atzerriko enpresetan lan-praktikak

IBARRA, Irune: Idazkera harmonikoak ahalbidetzen II

Praktikatzen: Gorputza eta bitartekariak musikan (eta II)

Hego Euskal Herriko Erreformako lehen promozioak burutuko ditu bere ikasketak aurki.

Euskal Nazionalismoa eta Hezkuntza Publikoa: Ikastolen publikazioa

ELLAKURIA, Pello:

IBARRA, Irune: Idazkera harmonikoak ahalbidetzen (eta III)

DUFAU, Aines; **SOLORZANO**, Pantxika: Kantiruri: kantu bilduma berria

Praktikatzen: Eraldaketa prozesuak ikastetxean

Euskal ikasleek III. Biltzar Nazionala ospatuko dute

Kalitatea lortzeko bidean

VADER, Marinus:

Euskal Ikasleen III. Biltzar Nazionala

Sarean Elkartearen ondorioak

BEGOÑAZPI ikastola, Bilbo: Osasunaren heziketa

ERENTZUN ikastola, Biana: Proiektuz eta ilusioz betetako eraikina

Praktikatzen: Eraldaketa motak

Praktikatzen: Eraldaketaren plangintza

Haur Hezkuntza eta espezialistak

ARAMENDI JAUREGI, Pello: Espainiako estatuko Hezkuntza helbideak Interneten

Zumalakarregi Museoa: Historia ikasteko beste modu bat

GAZTAÑAGA, Maixabel:

KONTSEILUA eta Hezkuntzaren Gizarte GUNEA normalkuntza bilatzeko baliogarri

Holandako Lanbide Heziketa. Autoikasketa ardatz.

Garai berrien atean euskal hezkuntzaren historia propioa idazten hasteko prest

Ibaizabal proiektua. Egitasmo zabal bezain osoa

AGIRRE, Nekane:

Neurriak euskaraz

Gelak hurrez bete dira

Ikusten ikasi, a ze abentura!

ARDUTZA ikastola, Gasteiz: Sorkuntza tailerrak.

Euskara nerabezaroan. DBH eta DBHOn euskararen erabilera sustatzeko zenbait ideia

GOÑI, Jesus Mari:
 Ordenagailuak? Bai,
LABIAGA ikastola, Bera: **JUUL**, galtzailerik gabeko hauteskundeak
043: Onditza, haurrik gabeko munduan bizitzera zigortu duten haurra
 Zergatik galarazi pertsona bati irakurketa-idazketaren gaineko ezagutzaren eskuratzeko sei urteak bete aurretik?
 Curriculum desberdinen gelak
GUNEAk bere lehen Adostasunen Txostena aurkeztu du.
ETXEBERRIA, Joana:
 Betea elkartea. Ingeleseko irakasleen topaleku
 Euskal Euskara nerabezaroan. Nerabeok hasi gara pausoak ematen
045: Sortzen-Ikasbatuaz elkarte bateratua eratu da Euskal Eskola Publiko Berriaren alde.
VITORIA, Jose Ramon:
 Sortzen-Ikasbatuaz elkarte bateratua eratu da
HEKO: Hezitzaile eta komunikatzaileen kolektiboa
046: Hezkuntza Nazionalak **SEASKA**ri: publikotasuna frantsesa gehiago irakastearen truke.
 Hezkuntzarako Aholkularitza Zerbitzuak. Laguntza pedagogikoen nondik norakoak
CARBONELL, Jaume:
 Haur txikien heziketa. Haur Hezkuntza aztergai Ikastolen Elkartean jardunaldietan
 Euskara nerabezaroan: Euskara Ostadar Proiektuan
 Erabilera garatzen, erabilera eroso sentitzen
HEGOA, Gasteiz: Mundua beste era batera ikusteko saiakera
 Kuadrillategi proiektua
0 - 3 urte bitarteko haurren garapen psikologikoa
049: Gauzak aldatzeko eta hobetzeko sustraietara jo behar da
EIZA GIRRE, Ana; ZUBIZARRETA, Imanol:
 Euskara nerabezaroan. Gazteen hizkera eta motibazioa
 Nola nahi ditugu Haur Hezkuntzako gelak?
 Ikasleek gaitu dute ikasturtea
 Arian-arian, etenik gabe, bidea eginean
IGERABIDE, Juan Kruz
 Heziketa, guztion erantzukizuna
ESTÉVEZ, Xosé
EZAMA ESNAOLA, Felix: Kristau Eskola Euskal Hezkuntza Sistemari
 Zatoz jolastera!
 bideoa kaleratzen dugu
 Lanbide Heziketa eta euskalduntze prozesua
 Baionako Uda Leku elkartea hil ala biziko egoeran
SANCHEZ, Seve: Zinea Filosofia jakintzagaian
 Reggio Emilia. Italiatik Euskal Herrira
 I. Ikasle Eguna ospatu da Amurion
 Hatz eta behatz
IKAS Pedagogia Zerbitzuaren bertso-ipuina proposamena
 Euskal irakaskuntzari egindako erasoaren aurrean, mugi gaitzen!
 Euskal Herria, bizi nahi duen herria
 Guk, geure Eskola. Euskal irakaskuntza, aurrera!
IGERABIDE, Juan Kruz:
ESTELA, Rosa: Saharako Smarako Heziketa Berezia
 Juul: artea eta hezkuntza uztartuz
 Zabaltzen: euskalgintzaren zutabeari eraso
 Talentu aparteko haurrak. Hauentzat ere heziketa berezia
ANAUT, Loli:
BIURDANA institutua, Iruñea: Nolako ikaslea halako lana
 Zer behar du? Hori eman nahi diot
 Nicaragua. Beste errealitate bat.
ROBLETO, Fernando:
CARDENAL, Fernando:
FLECHA, Ramon:

Zuzendaritza taldeak. Ikastetxeetako eragile

SAINZ, Matilde:

BOISEKO IKASTOLA: Ameriketako euskal ikastola

TABOADA, Lourdes:

Hezkuntza Erkidegoa ere EAeko hauteskunderen emaitzei begira

GARMENDIA, Joxe Fernando:

VALLÉ%oS, Eduard:

TEBEROSKY, Ana:

Aschero sistema euskal curriculumerako ekarpena

Karmele Alzueta saria hezkuntza berriztapen proiektuentzat

APPLE, Michael:

Euskal Herriko Lanbide Eskolak nazioarteko eskolekin harremanetan

GARCIA, Maite: Eskoriatzako Irakasle Eskolaren 25 urteak: iraganari eta geroari begira

Itziar Barriola, Iparraldetik argi egin diguzu: mila esker

ETXEBERRI, Mixel:

IGELDOKO HERRI ESKOLA: Zumeta proiektua

1923ko andereñoen lan-kontratua

Haurrek hezkuntzarako duten eskubidea bermatu egin behar da

MATA, Marta:

The Beatles euskaraz

Rock & Orff taldeak DBHn musika lantzeko material berria aurkeztu du euskaraz: The Beatles CD-ROMa

Hik Hasiren "Zatoz jolastera!" bideoak Miguel Altzo ikasmaterialen kalitate saria jaso du

Historiako zertzeladak: Mikelete postuetako eskolak

Zorionak Erein, 25 urteotako ekarpenagatik

Gazteen irakurzaletasuna. Nola sustatu?

IZTUETA, Anjeles:

SALBATORE MITXELENA ikastola, Zarautz:

Gazteentzako euskarazko komikiak

Musika Irakasle Euskaldunon II. Topaketa emankorra izan da

Historiako zertzeladak: Maria Dolores Goia Mendiola andereñoa

Urte berri on, ikasturte hobeari!

Emakumea hezkuntzan. Gehiengoa bai, baina zertan?

ASKAGINTZA erakundea: Drogak larrugorrian

URTXINTXA ESKOLA: *Euskal jolasen bilduma* CD-ROMa da produktu berriena

Historiako zertzeladak: Bilboko Euskal Eskolak (1908-1918)

Hezkuntzaren kalitatea

BILGUNEA:

ETXAGUE, Kamino: Talde kooperatiboen lana ingurunearen ezagutza arloan

COIRA, Patxi: Haur Hezkuntzako lehen zikloaren Araitze Dekretua Euskal Autonomia Erkidegoan

Historiako zertzeladak: Behartsuen unibertsitatea: arte eta lanbide eskolak Euskal Herrian

Unescok dio euskara desagertzeko arriskuan dagoela

MARCHESI, Alvaro:

SAN JOSE ikastetxea; Donostia: urte osoan ateak zabalik

Historiako zertzeladak: Libe Goñi, Seaskako lehen irakaslea

Bigarren Hezkuntzako irakasleen prestakuntza

AOZARAZA ikastetxea, Oñati: Ikasleek barneko sentimenduak adierazteko modu bat aurkitu dute olerkigintzan

ASKAGINTZA elkarteak: Osasun heziketa eta droga-menpekotasunen prebentzioa eskolan

Historiako zertzeladak: Gipuzkoako Fraisoro sehaska etxea: haur abandonatuen trataera XX. mendearen lehenengo hamarkadetan

Hezkuntza geurea eta solidarioa

Zientzia

abstraktua ala ulergarria?

Argazkiak eta Matematika

Haur txikiak eta hiriak aztergai

izango dira maiatzaren 25ean Bilbon

Historiako zertzeladak: Julia Fernandez Zabaleta maistra nazionalista
MARTINEZ, Orlando. ROMERO, Oscar.

Antzerkia oholza gainean eta eguneroko bizitzan

Haur-jolasen abestiak III CDa eta zinta kaleratu berri ditu HIK HASIK

Haur jolasen abestiak III

UGARO ikastetxea, Legorreta: Pasaportetik gabeko bidaia Saharara

Historiako zertzeladak: Euskarazko alfabetatzea XIX. mendean: inprentaren baldintzapena eta eragintza

Kultura erreferenteak oinarrizko hezkuntza curriculumean

ARANBURU, Pedro:

IKASBIDE ikastetxea, Donostia: eIkasbide proiektua. Haur eta Lehen Hezkuntzan IKTak epe motzean integratzeko modua

Eraso guztien gainera euskal hezkuntza sistemarengako konfiantza azaldu dute irakasle, guraso eta administrazioak

Badator *Jolasen altxorra* bideoa

Historiako zertzeladak: Elbira Zipitria, euskal eskolaren izen mitikoa

Hezkuntza gizartearen zerbitzura egotea guztion ESKUBIDEA da

Eraiki dezagun denok Euskal Eskola Publiko Berria

ZULAIKA, Luis Mari:

GAUTEGIZ ikastetxea, ARTEAGA: Mugak gaindituz, eskola handitu Eskolen arteko postatrukea

Ikastolen Elkartearen joko didaktikoek jolasa eta ikasketa uztartzen dituzte

Kukurruku! Zer diozu?

Ipuinak, poemak, esaera zaharrak, musika eta elkarrizketak biltzen dituen CD berria

Historiako zertzeladak: IKAS, kultur elkartetik euskal pedagogia zerbitzura

Hezkuntzan parte hartzea behar-beharrezkoa da

Bizitza osoan zehar ikasten. Florentziako foruma

URBIETA, Imanol:

MENDEBALDEKO SAHARA: Gazuniako Lanbide Eskola.

0-3 zentroak: hezkuntza eskaintzea helburutzat eta ez laguntza eskaintzea

Mundu berri bat posible da oraindik.

Abia gaitezen!

Kuba, hezkuntza eredu berrien bila jarraitzen duen herria

BATISTA, Iris:

Kolorearen pertzepzioa: ikasgelan duen eragina

Euskal Herriak bizi behar badu, euskal hezkuntza eta komunikabideak ezinbestean behar ditu.

Hezkuntza Komunitate Dialogikoak. Partaidetasuna eta eraldakuntza oinarri dituen ametsa

HERNANDEZ, Pedro:

Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenak urrats berri bat eman du

Historiako zertzeladak: Euskadiko haurren babesa eta hezkuntza guda zibilean

Etengabeko ikaskuntza egungo gizartearen erronka

Bruselako Foyer zentroa. Etorkinak integratzeko ahaleginean

DE SMEDT, Hilde:

Historiako zertzeladak: Praktizismoa edo kultura. Bigarren Hezkuntza Bilbon, Eregimen Zaharraren amaieran

MURILLO, Javier:

ESKOLA SAIAKUNTZARAKO ZENTROA, Sukarrieta: Ebaluazio eredu bat aniztasunari ekiteko

Kontu kontari Pirinioetan egitasmoaren berri Josemari Carrereren eskutik

Ikastoletako lehen andereñoak aipatuak izan dira, noizko haien eskubideen aitortpena?

Euskal Eskola Publikoaren Legea 10. urteurrenean

Euskal Eskola Publikoaren Legeaz mahai ingurua: Ana Eizagirre, Iñaki Etxezarreta, Marije Fullaondo.

IKAZTEGIETAKO HERRI ESKOLA: Zer dira janari transgenikoak?

UEUko Sexologia Saila: Goazen sexologia aztertzeraz eta bizitzera

- Txirulaz (Liburua)
- Txirulaz II (Liburua). AGORTUTA
- Txirulaz (CDa) AGORTUTA
- Gitarrak (Liburua)
- Eskusoinuaz (Liburua)
- ASCHERO metodoa: Ostadarraren hotsaz (Liburua)
- Pianoaz (Liburua)
- Kukurruku! (CDa)
- Zatoz jolastera! (DVDa)
- Jolasen Altxorra (DVDa)
- Haurren sekretua

Lagunarteko Hizkerarekin jolasean . TTAKUN Kultur Elkartea eta URTXINTXA Astialdiko Eskola.

Ikertzeko, hausnartzeko eta proposamenak egiteko garaia da. Abia gaitezen!

IZTUETA, Anjeles:

LAREKI, Arkaitz: Nola irakasten dute DBHko irakasleek? Irakasteko modu berri bat baliabide teknologikoak erabiliz

Ipolagun taldeak Mexikoko haurrei laguntzeko deia egiten du

Muga guztien gainetik... euskaraz! ASSA ikastola, La Puebla de Labarca

Guztientzako eskola
Eskola barneratzailea

ADARRA Pedagogi Erakundea:

HEGOA ikastetxea, Donosita: Eskultorea naiz

IKASBIDEA ikastola, Gasteiz: Kantuz blai

ARGENTINA. Euskal Herriko lanbide eskoletako makinak Argentinako ikastetxetara eraman dira

Hezkuntza, etorkizuna prestatzeko eztabaida guztien erdigunean

Lanbide Heziketaren osasuna Ahuleziak eta indarguneak

A INSCOW, Mel: "Eskola barneratzaileagoak lortzeko, eskolan lan egiteko moduak aldatu egin behar dira. Eskola kultura aldatu behar da"

PORTER, Gordon I.: "Arrakasta lortzeko gela berezirik ez dugula behar erakutsi dugu"

FRANTZIA: Hezkuntza eztabaida

Muga guztien gainetik...euskaraz! OZTIBARRE ikastola, Izura: Lau alokutibo formatan jarduten duen eskola bakarra

Izena batzuek, eta izana besteek.

Nork inosatzen du hemen bere hezkuntza?

Familia ereduak eta eskola

Bertso antzerkia: Inaxitoren ametsak

AOZARAZA ikastetxea, Oñati: Literatura bizitzeko modu bat

Hezkuntza sistemen trukea: Euskal Herria eta jatorrizko herriak

Muga guztien gainetik... euskaraz! ARANGOITI ikastola, Irunberri. Elkartasunaren ikastola

Hezkuntzaren egiteko nagusietakoa bazterketaren aurka jokatzeara da

0-3 urteko haurrak eta euren eskolak

PETUYA, Alazne:

MENDILORRI IV eskola, Iruñea: ...eta Miróren koadro bat jakintza iturri bihurtu zen

ERNIOBEA institutua, Villabona: Irakurketa eta plastika

Muga guztien gainetik... euskaraz!: BEURKO institutua, Barakaldo: Irratia, mintzamen lantzeko makina

086: Zer egin hezkuntza egiturak haurra kontuan hartzen ez duenean?

FERNANDEZ ANGUIA, Mariano:

BILETXEA ikastetxea, Baigorri: ERRA MOUSPE, Mikel: Kantuaren herri kultura bizia

Muga guztien gainetik... euskaraz!: ARRATIA BAILARAKO ESKOLAK: Herrian sareak sortu, Europan hizkuntza gutxituen trukea

087: Eskolan politika bai, alderdikeriari ez.

Erlijioa bai, adoktrinamendurik ez.

KRAKOVIAko haur eskolak, Polonia: Krakoviako haur eskolak ezagutzen

ELKAR-BIDE programa. Ipar-Hegoko eskolen trukeak

ETXANIZ, Pello: Hizkuntza testa DBHko 1. mailako ikasleentzat

Muga guztien gainetik... euskaraz!: BIDARRAIKO eskola publikoa, Bidarrai: Iparraldeko paradisu ttipia, B erduan

088: Eskola hobetzekotan espirtu kritikoa sustatu beharra dago

Harrera etxeak eta familiak

MARFEEI, Marta:

PELLO ERROTA ikastetxea, Asteasu: Bazen behin... gure aitona-amonon kontu aberatsak

Modenako (Italia) 0-6 urteko udal haur eskolak Europan eredu

Artearen txokoa: euskal gizartea ulertzeko beste bide bat

Muga guztien gainetik... euskaraz!: EL SALVADOR MARISTA ikastetxea, Bilbo: Bilboren bihotzean D eredu gora

Etorkinak; aniztasuna eta elkarbizitza

ERNIOBEA institutua, Billabona-Amasa: Euskal arte garaikidea gelara

MARTINEZ, Iñaki: Desberdinak al dira herrietako eta hirietako ikasleak?

■ **Argiaren Sareakua (DVDA)**

■ **Haur-jolasen abestiak (CDa) AGORTUTA**

■ **Haur-jolasen abestiak II (CDa) AGORTUTA**

■ **Haur-jolasen abestiak III. (CDa) AGORTUTA**

■ **Begiradaren heziketa (DVDA+Liburua)**

■ **Gazteak eta euskara**

■ **Haur-gaztetxoan marrak ekoizpenaren bilakaera AGORTUTA**

horren nabarmenki? Zertan? Noia?

Muga guztien gainetik... euskaraz!: Koldo Mitxelena institutua, Gasteiz:
Erabilera eta kalitatea hobetzeko ideien fabrika

COSIDO, Jesus:

5 urteko haurrak mezu elektronikoak idazten

Muga guztien gainetik... euskaraz!: BERNAT ETXEPARE lizeoa, Baiona:
Euskararen gotorlekua
Euskararen gotorlekua

092: Eskola antolaketak eragina izan dezake berdinen arteko harremanetan

Bullying -a aurrez aurre

URRUTIA, Iñigo:

BIDEBIETA Institutua, Donostia: Espezie exotikoak: turistak ala inbaditzaileak?

Marokoko hezkuntza sistema

Muga guztien gainetik... euskaraz!: BALLONTI BHI, Portugalete.
Portugaleteko misio lana

093: Hiru Sareta: elkarrekin bai, indarrak batuta obe

Mendebaldeko Sahara, itxaropenaren baitan

ALZOLA, Nerea:

ITSAS GELA, Pasaia: Bat, bi, hiru... itsasora! Itsas Gelak itsasoratze
gonbita luzatzen digu

Muga guztien gainetik... euskaraz: ARGANTZON ikastola:
Trebifuko arabarren ikastola

Ilunetik argira Elbira Zipitria deskubritzen duen liburua

094: Euskara ezagutzeko eskubidea eta betebeharrak

Nor gara gu? Zer gara gu? Testu liburuek diotena

ARROY, Igor:

EGIZABAL, Diego: Kuadrillategi egitasmoa. Koadriletan euskara erabiltzeko
saiakeraren emaitzak

Elbira Zipitriaren ibilbidea gogora ekarri dute bere lankide eta ikasleek.
Liburuaren egileekin bildu ziren haren txokorik maituenak bisitatzeko

Muga guztien gainetik... euskaraz!: GARRALDAKO eskola, Garralda:
Eskualdeko haurren topagune

095: Europarako Konstituzio Itunak ez ditu hizkuntza eskubideak jasotzen

Droga menpekotasunen prebentzioa

www.apoa.net Ipuin didaktikoak sarean

ZANGOZA ikastola, Zangoza: Artista txikien aztarnak Zangozako ikastolako
atarian

Muga guztien gainetik... euskaraz!: EPERRA Ikastola, Sohã ¼ta:
Xibã ¼tarren habia

GIMENO SACRISTÁN, José

097: Beste mundu bat posible da; hezkuntza eguneratuz eraiki dezagun

Autoritatea. Mugak jarri ezinik

TEDESCHI, Maddalena; PICCININI, Sandra:

Kataluniako Hezkuntzarako Gizarte foroa

MONTORRE ikastetxea, Gautegiz-Arteaga: Planoa eskuan eta ibili munduan.
Orienteering Arteagan zehar

Ezagutu ditugu Reggio Emiliako (Italia) 0-6 udal haur eskolak

Muga guztien gainetik... euskaraz!: LEMOIZEKO eskola: Herri txikiarentzat
bizitza

098: Iruñerriko D ereduko ikastetxeen egoera: hazi bai, pilatu ez

M-learning : joan eta ikertu

BETTO, Frei:

HUEGUN, Axier: Zer dio gorputzak hezitzen ari garenean?

ZANGOZA ikastola, Zangoza: Jarrerak badute zeresana Zangoza ikastolan

Muga guztien gainetik... euskaraz!: PEDRO LOPE DE LARREA, Agurain

099: Anjeles Iztueta, lau urtez EAeko Hezkuntza sailburu

ARRASATEKO BHI, Arrasate: Lan kooperatiboa

Muga guztien gainetik... euskaraz!: ELORTZIBAR ikastola, Elortzibar

LIZARRA ikastola, Lizarra: Euskara herriratzen dakiena

Ikastetxearen hezkuntza asmo nagusiak

MONTERO, Jose Luis:

IBARZABAL, Eugenio:

Summerhill Donostian. Sutan gordetako oroimena

Euskal hezkuntza: ezagutza, erakunde, erakunde, erakunde (1980-1990)

emakumeen lanbide prestakuntza normalizatuaren nastapenak (1980-1990)

LABIAGA ikastola, Bera:

GAYARRE ikastetxe publikoa, Erronkari: Erronkaribarra, belaunaldi berria iragana eta geroa uztartuz

Antzuolako herri eskola:

Haur eskolak

AURREKOETXEA, Manu:

LANGAITZ, ikastola, Orereta-Errenteria: Gurasoak euskalduntzen

SAN JOSE DE CALASANZ, ikastetxe publikoa, Donostia (Altza): Ohitura eta baloreak lantzen

ARAMENDI, Peio: Erreformen agertzen diren oztopoak

Euskal maisu-maistren garbiketa Gerra Zibilean eta Frankismoaren hasieran

Irakasle-ikasleen arteko harremanak

Errenteriako PAT:

R. M. de **AZKUE** ikastola, Lekeitio: Non(d) (hik) hasi?

URBE, Ainhoa; **ZABALA**, Juantxu: Psikomotrizitatea eta gero zer?

Frankismoaren garaiko etxe eskolaren esperientzia Bizkaian

Irakurketaren eta idazketaren ikaste prozesuari buruzko ekarpen berriak eta ohiko metodoak

Lanbide Heziketa

AREVALO, Jorge:

IKASLAN: eremu publikoan elkarte pribatuak

TOLOSALDEKO Lanbide Heziketako institutua, Tolosa: Etxebizitza baten elektrifikazioa

Lanbide Heziketa berria: Javier Mardonesekin solasean

LUKAS, J. F.:

TOKI-ALAI herri ikastetxea, Irun: Irakurketaren zaletasuna bultzatuz

SANCHEZ, Seve: Lanbide Heziketa berria eta euskara

Urrutiko euskal eskola: Euskadi-Venezuela ikastola (1965-1986)

HAMILTON, David:

BIURDANA (Iruñea) eta **ASAKATASUNA** (Burlata) institutuak: DBHren ezarpena Nafarroako institutuetan

AIAKO herri eskola, Aia: Euskal giroko herrietan erdara nola landu

Azterkosta. Ikasleak gure itsasbazterra aztertzen

Irakasleriaren osasuna

AIZARNA, Kontxi:

Haurrek eskubidea dute errealitatearen osotasuna ezagutzeko. Artzain Oneko 36. Txanda, hezkuntzako langileak

TEJEDOR, Alfonso:

AVE MARIA ikastetxe publikoa, Errotxapea: Euskararen lehen urratsak erdal giroko eskoletan

BELGIKA: Belgiar estatuko hezkuntza sistemak

Edozein kulturatan ematen den heziketa, komunitatezkoa zein formala

IZARRAKO herri eskola, Izarra: Euskararen fruituak erdal baratzean

LABIAGA ikastola, Bera: Berako ikastolaren borroka

DANIMARKA: Danimarkako hezkuntza sistema

GOROSTIDI, Jose Luisen omenez

DOBH, EA EKO ertaintetako erreforma

ELKARRI:

DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA: Kirol aukerak ezgaituentzat

Marraskia arte adierazpen arloan eta gizakiare garapen bezala

TAFALLAko ikastola, Tafalla: Irakurketa-idazketa konstruktibismoaren ikuspegitik

AITOR ikastola, Donostia: Oihala igo eta funtzioa hasten denean

BRITANIA HANDIA: Ingalaterra eta Galeseko hezkuntza sistema

OIARTZUNGO MUSEO BATZORDEA:

Demokrazia irakaskuntzan

Gipuzkoako Haur Eskolan Koordinakundea: Haur Hezkuntza. Lehen zikloa?

Badator, badator, euskal eskola publikoaren festa

MARTINEZ HUERTA, Jose Felix: Noruntz doa ingurugiro heziketa Euskal Herrian?

ARANO, Rosa M^ª: Txingudi ikastolako hizkuntza plangintza

Tertulixak: autoheziketa modu bat

FRANZIA: Etxebizitza baten elektrifikazioa

IRLANDA: Irlandako Hezkuntza Sistema

AÑ'ORGA, Pello:

Haurrekiko tratu txarrak aztergai

KORTESEKO ikastola, Kortez: Hegoaldeko mugaraino euskaraz

EPERRA ikastola, Sohüta:

ETXEBERRIA, Elias:

IBAIALDE 97. Ezagutu eta maitatu

LÁ´ educazione italiani

19: Handik eta hemendik euskal eskakizunei erantzun behar nonahi

Hezkuntzako beste hezitzaileak

MENDIZABAL, Mikel; LOPATEGI, Jon:

Eskola txikien koordinazioa: Gernika inguruko eskola txikien esperientzia

JOSE ARANA ikastola, Eskoriatza: Haurtxoteka, liburutegia baino gehiago

FUNES, Jaume: Nerabetasuna

SAN JOSE DE CALASANZ, Donostia: A eta B ereduetatik D eta B ereductara

Badator EAera DOBHren ezarpena

Eskolako bertsogintza erreformaren ildotik

Ikasbatuaz; pauso sendoak emanez

SUEDIA: Suedia, lan eta familia betebeharrak orekatuz

OIARBIDE, Josi; ZABALA, Xabier: Haur-jolasen abestiak:

Adimena eta autoestimua irakaslearen zeregina

SUITZA: Suitzako banka sekretuak, txokolatea eta eskolak

Praktikatzen: Adierazpen plastikotik hezkuntza plastikora

Praktikatzen: Ikonoteka baten antolakuntza (I)

Haur-jolasen abestiak

ELORZA, Juan mari; EZKIA GA, Patxi; LARREA, Jose Luis:

PRAKTIKATZEN: Ikonoteka baten antolakuntza (II)

24: Euskara eta Euskal Heziketarekiko erasoak areagotu diren honetan euskararen aldeko jarrerak inoiz baino biziago

Eskoriatzako museo eskola:

KOSMOS GELA, Irun: Izarrak ikusten ikastetxean bertan

NORVEGIA: Norvegia: eskola publikoaren ugaritasuna

PRAKTIKATZEN: Mural kromatikoa (I): kolorearen aurkikuntzako haurren abenturan lagungarria eta motibagarria den tresna

Hezkuntza kooperatibak

DONIBANE-LOHITZUNEKO ikastola, Donibane-Lohitzune: Donibane-Lohitzuneko Ihauteri ttiki eguna

PORTUGAL: Atlantiar kresalaren bila Portugalera

PRAKTIKATZEN: Zer da eskultura? (I)

Batasun didaktikoa

KARMENGO AMA ikastetxea, Trintxerpe: Eskolaren funtzio aldatzailea.

DOLZ Joaquim: Generoak eta sekuentziazioa hizkuntza arloko curriculumean

ARTZAIN ESKOLA, Arantzazu: Eskoletatik ateratako artzainak

SUEDIA: Suediako haur zerbitzuak eta eskolak ezagutzen

PRAKTIKATZEN: Zer da eskultura? (II). Batasun didaktikoa

028: Eskola berriaren gorpuzketan ezinbestekoa den nazionaltasunari ekin zaio

Antzerkigintza eta irakaskuntza

URANGA, Marije:

BELTRAN, Juan Mari; ETXEKOPARE, Mixel: Musika herrikoia hezkuntzan

URRETXU-ZUMARRAGA ikastola eta **TERRASAKO** eskola publikoa:

Elkatrueka, harremanak bideratuz

FINLANDIA: Eskandinaviari begira

IPAR HEGOA Fundazioa: Euskal eskolaren azken hogeitau urteak. **MARTÁ, Felix** elkarrizketa

PRAKTIKATZEN: Zer da eskultura? (eta III) Batasun didaktikoa

Haur eskola txikiak irakasleen

ALVAREZ, Manuel:

Eskola eskoauditoreak. Ingugiroarenganako kezka baino gehiago

Europako irakasleen ordutegiak eta ordainsariak

Argentinako irakasleak urtebetez barau greban

PRAKTIKATZEN: Arte Hezkuntzarako baliabideak Interneten

Samaniego ikastetxea, Tolosa: Eskola bioklimatiko eta jasangarri bakarra

10 urte inguruko haur talde bati, alegia, gorputzaren funtzionamendua oraindik nahiko ondo kontserbatzen dutenei, hitzaldi bat emateko eskatu dizute. Zer izan behar dugu kontuan hemendik 30 urtera gaur bezain sano egon daitezen?

Enpresa berriak sortzeko kultura ereiten da ikasleengan: Lea-Artibaiko Azaro fundazioa

Beldurraren aretoa, Galtzagorri Elkartek beldurrezko ipuinen inguruan osatutako erakusketa

ETXENIKE Pedro Miguel: EHUko Fisikako katedraduna. DIPCKo lehendakaria

Alboan fundazioa herrien elkartasunaren alde lanean

ESTRUCH, Joan: A utonomiak garrantzia du, baina ez da hezkuntza sistemak dituen gaitzen irtenbidea

Isabel Celaá. "Hezkuntza edozein herrialderen eraldaketarako ardatz nagusia da

Eskola Txikiak. Dagokienaren eske

Nazioarteko hezkuntza. Egoerak eta erronkak

PISA frogan hamaika irakurketa

Neus Samarti: "Ebaluazioa aldatzeko, azterketako galderak aldatu behar dira. Ez galdetu 'Egin lorearen marrazkia, eta idatzi zatien izenak', hau baizik: 'Mendira joan garenean, amak esan dit loreak ez puskatzeko. Zergatik?'

Hezkuntzari erasoaldiaren irakurketa eta erantzuna

Hezkuntza aztergai latinoamerikan

Venezuela, Bolivia eta Nikaragua Kubaren bidetik

Nafarroako landa eremuko eskolak: Txikitasunak elkarturik

Oh Happy Day! Ikasleek musika eta dantza ikas ditzaten aldi berean

Kataluniako hezkuntza eraberritzailerak bidaia